

II - ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA

VITORIA-GASTEIZKO UDALA

EKONOMIA SUSTAPENAREN, ENPLEGUAREN, MERKATARITZAREN ETA TURISMOAREN SAILA

Aurkitutako akatsa zuzentzea 2021eko urtarrilaren 25eko ALHAOn (9. zk.) 139 zenbakiko iragarkian argitaratu zen 2020 abenduaren 23ko ebazpenean, zeinaren bidez onesten baita "Ikus-entzunezko proiektuak garatu eta ekoizteko 2019ko laguntza ekonomikoen" deialdian emandako dirulaguntzen bigarren ordainketa

I. 2019ko ekainaren 14an egindako bilkuran Tokiko Gobernu Batzarrak onetsi zituen oinarriak eta deialdi publikoa "Ikus-entzunezko proiektuak garatu eta ekoizteko eta gidoiak idazteko 2019ko laguntza ekonomikoak" berariazko udal-programa arautzeko (2019ko uztailaren 19 ALHAO, 83. zk).

II. Eskabideak aurkezteko epea amaituta, 2019ko azaroaren 26ko ebazpenaren bidez ebatzi zen deialdia, eta hamazazpi dirulaguntza eman zitzaizkien haren baldintzak betetzen zitzutela egiaztatu zuten enpresei (2019ko abenduaren 16ko ALHAO, 144. zk.), eta emandako laguntzaren ehuneko 80-ehuneko 50eko (modalitatearen arabera) konturako ordainketa egin zen.

III. Tokiko Gobernu Batzarraren 2020ko uztailaren 17ko erabakiaren bidez, COVID-19aren pandemiak eragindako egoera zela-eta, deialdiaren oinarriak aldatu ziren, eta dirulaguntzak justifikatzeko eta ordaintzeko epea luzatu zen, interesdunak hala eskatuta (16., 24. eta 29. oinarriak).

IV. Egindakoaren justifikazioak aurkeztuta, 2020ko abenduaren 23ko ebazpenaren bidez, Ekonomia Sustapenaren, Enpleguaren, Merkataritzaren eta Turismoaren Saileko zinegotzi ordezkariak onetsi zuen emandako laguntzen bigarren ordainketa egitea (ehuneko 20-ehuneko 50, modalitatearen arabera). Erabakia 2021eko urtarrilaren 25eko ALHAOn (9. zk.) argitaratu zen.

V. 2021eko urtarrilaren 25eko idatziaren bitartez, Enpresen Udal Zerbitzuko teknikariek jakinarazi zuten akats bat antzeman zela Ikusgarri Films SL enpresari diruz lagundutako proiektuaren izenean, II. atalean (film laburrak ekoizteko laguntzei buruzkoa), "Irati" izan ordez "Dar-dar" izan behar baitzuen.

Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015.

Legeak 109.2 artikuluan xedatutakoari jarraituz, administrazio publikoek edozein unetan zuzendu ditzakete, ofizioz edo interesdunek eskaturik, beren egintzetako oker materialak, egi-tezkoak edo aritmetikoak.

Halaber, deialdi honetan ezarritako prozeduraren arabera, Ekonomia Sustapenaren, Enpleguaren, Merkataritzaren eta Turismoaren Saileko zinegotzi ordezkariak du eskabideak ebazteko eskumena.

Azaldutakoaren haritik, eskumenak eskuordetzeko Tokiko Gobernu Batzarrak 2019ko ekainaren 14an hartutako erabakia aplikatuz, Ekonomia Sustapenaren, Enpleguaren, Merkataritzaren eta Turismoaren Saileko zinegotzi ordezkariak honako ebazpen hau eman du.

Ebazpena

Lehenengoa. Egiaztatuta akats bat dagoela Ikusgarri Films SL enpresari diruz lagundutako proiektuaren izenean, "Ikus-entzunezko proiektuak garatu eta ekoizteko eta gidoiak idazteko 2019ko laguntza ekonomikoen" deialdian emandako laguntzen bigarren ordainketa onesteko ebazpenean, honako akats-zuzenketa hau onestea:

Honela dio:

| MODALITATEA: FILM LABURRAK EKOIZTEKO LAGUNTZAK | | |
|--|------------------------|------------------------|
| NAN / IFZ | PROIEKTUAREN IZENBURUA | EMANDAKO DIRU-LAGUNTZA |
| B01539576 | Irati | 3.350,00 euro |

Honela behar du:

| MODALITATEA: FILM LABURRAK EKOIZTEKO LAGUNTZAK | | |
|--|------------------------|------------------------|
| NAN / IFZ | PROIEKTUAREN IZENBURUA | EMANDAKO DIRU-LAGUNTZA |
| B01539576 | Dar dar | 3.350,00 euro |

Bigarrena. Akatsak zuzentzeko erabaki honen berri ematea enpresa interesdunari, ALHAOn argitaratuz, eta jakinaraztea erabakiak amaitu egiten duela administrazio-bidea eta haren aurka zuzenean jarri ahal izango dela administrazioarekiko auzi-errekurtsua Vitoria-Gasteizko Administrazioarekiko Auzietarako Epaitegian, bi hilabeteko epean, jakinarazpena jasotzen den egunaren biharamunetik."

Vitoria-Gasteizen, 2021eko urtarrilaren 28an

Administrazio Zerbitzuko burua
LUCIO CRUCELEGUI Y JÁUREGUI